

IKUSPEGIAK

Sormen-industriei buruzko 2019-2021eko
estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



IKUSPEGIAK

Sormen-industriei buruzko 2019-2021eko
estatistikaren datuen irakurketa analitikoa



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2023

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren
katalogoan aurki daiteke: www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazio teknikoa:
ICC-CONSULTORS CULTURALS, SL

Landa-lana:
SIADECO, S.COOP

Diseinua eta maketazioa:
Miren Unzurrunzaga Schmitz

Itzulpena:
Itzulpen Zerbitzu Ofiziala (IZO)

ISBN:
978-84-457-3733-0

1.	Sarrera metodologikoa	5
1.1.	Fitxa teknikoa	6
1.2.	Definizio kontzeptualak	7
2.	Sormen-industriei buruzko zifrak	8
2.1.	Sektore-dimentsioa	8
2.2.	Lurraldea	14
3.	Dimentsioa eta iraunkortasuna	20
3.1.	Industria-dimentsioa	20
3.2.	Iraunkortasuna	23
4.	Sektoreen asimetriak eta profilak	24
4.1.	Asimetriak	24
4.2.	Agenteen profilak	27
5.	Nazioartekotzea	46
6.	Generoa	47
6.1.	Emakumeen presentzia	47
6.2.	Berdintasun-politikak	50

1. Sarrera metodologikoa

Txosten honek *2021eko Sormen-industrien Estatistikako* emaitzen ikuspegi globala eskaintzen du. Bi urtez behingo eragiketa da, eta *Arteen eta Kultura-industrien Estatistikarekin* partekatzen ditu helburuak eta metodologia. Bi tresna horiek elkarteari esker, EAEko KSI multzoaren oinarrizko ezaugarriak ezagutu daitezke.

2017an hasitako seriearen hirugarren edizio honetan, modaren, diseinuaren, arkitektura-ren, hizkuntzaren industrien, publizitatearen eta bideojokoen sektoreetako 328 agentek 2021ean emandako datuak aztertzen dira.

Lehenengo kapitulan, sektore horien zifra handiak aurkezten dira: EAEko sormen-industriak osatzen dituzten eragileen mapa, sortzen dituzten lanpostuak, eta non dauden. Ikuspegi panoramiko horren ostean, honako hauei buruzko azterketak egiten dira: industria-dimentsioa eta jasangarritasuna, barne-asimetriak eta sektore-profilak, nazioartekotzea, eta, azkenik, genero-ikuspegia. Azken kapitulu hori indartu egin da edizio honetan, eta enpresetan aplikatzen ari diren berdintasun-politikei buruzko galderak sartu dituzte, aurreko edizioetako galderez gain (emakumeek enpleguan duten presentzia).

1.1. Fitxa teknikoa

Eragiketaren izena
EAEko Sormen-industrien Estatistika
Eragiketaren estatusa
Eustatek ofizialduta
Aldizkakotasuna
Bi urtean behin
Eragiketa-mota
Zentsu-eragiketa
Informazioa biltzeko urtea
2022
Informazioaren erreferentzia-urtea
2021
Landa-lanaz arduratu den enpresa
Siadeco
Zentsua eta erantzun-maila
328 agente (arkitekturako 72 agente, diseinuko 50, hizkuntzaren industrietako 57, modako 30, publizitateko 107, bideojokoetako 12). Erantzun-maila, guztira: % 81,8. • Arkitekturako erantzun-maila: % 72,2 • Diseinuaren erantzun-maila: % 88,0 • Hizkuntzaren industrien erantzun-maila: % 89,5 • Modaren erantzun-maila: % 63,3 • Publizitatearen erantzun-maila: % 85,2 • Bideojokoaren erantzun-maila: % 91,7

1.2. Definizio kontzeptualak

Sormen-sektore guztien betebeharrak komunak:

- Sormen-industriako enpresa pribatuak soilik jasotzen dira; autonomoak eta pertsona fisikoak, hasiera batean, ez dira estatistikan sartzen.
- Estatistikan sartzeko gutxienezko enplegua: 3 langile (3 langile baino gutxiago dituzten agenteak ez dira sartu).
- Nodo gisa funtzionatzen duten elkarten enpresa bazkideak dira salbuespena; izan ere, sartu egin dira 3 langile baino gutxiago izan arren.

Arkitektura	▪ Eraikuntza-enpresak ez dira sartu.
Diseinua	▪ Diseinuaren azpisektoreko sormen-industriatzat jotzen dira hirugarrenei zerbitzua ematen dieten enpresa guztiak (diseinu-estudioak) eta enpresaren jardura nagusia diseinua izanik (ez ekoizpena, ez komertzializazioa; horretarako enpresaren diseinu-jarduerak ere behar dira, eta hori izanik ere haien abantaila lehiakorretako bat) diseinu propioak autoeditatzearekin lotutako ekoizpen- edo komertzializazio-jarduerak dituztenak.
Hizkuntzaren industriak	▪ Itzulpen- eta interpretazio-enpresak, hizkuntzaren teknologien enpresak, hizkuntza-aholkularitzako eta hizkuntzen irakaskuntzaren arloko enpresak. ▪ Enpresen zerrenda Langunek baliozkotu du oso-osorik; horrenbestez, 3 langile baino gutxiagoko enpresak ere jasotzen dira.
Moda	▪ Diseinu propioa egiten duten enpresak soilik sartu dira. ▪ Oso-osorik fabrikazioarekin lotutako jardura duten enpresak baztertu egin dira.
Publizitatea	▪ Publizitate-komunikazioko estrategiak eta ekintzak sortzea, diseinatzea eta egitea.
Bideojokoak	▪ Ez da sartu bideojokoaren salerosketa.

2. Sormen-industriei buruzko zifrak

2.1. Sektore-dimentsioa


Sormen-industrien Estatistikaren hirugarren edizio honetan, erroldan sartu ahal izateko eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten EAEko 328 agenterik buruzko informazioa jasotzen da. Honako hauek osatzen dute estatistikako agenteen mapa:

- **Arkitekturaren** sektorea, 72 enpresek osatua.
- **Diseinuaren** sektorea, 50 agente biltzen dituena.
- **Hizkuntzaren industriak**, 57 agentek osatuta.
- **Modaren** sektorea, 30 enpresa.
- **Publizitatearen** sektorea 107 agentek osatzen dute, eta honako hauek ditugu barruan: sormen-agentziak, komunikabide-agentziak, marketin-zerbitzuko agentziak, eta komunikazio-aholkularitzak eta harreman publikoetako agentziak.
- Eta **bideojokoen** sektorea, 12 agente biltzen dituena.

Hurrengo irudian ikus daitekeenez, publizitatearen sektoreak ditu agente gehien (% 32,6), eta atzetik datoz arkitekturaren sektorea (% 22,0) eta hizkuntzaren industria (% 17,4), diseinuaren sektorea (% 15,2), modaren sektorea (% 9,1) eta, azkenik, bideojokoen sektorea (% 3,7). Nahiz eta, oro har, sektoreen banaketan aurreko edizioeko egiturari eutsi zaion, aldaketa esanguratsuenak arkitekturan (ehuna handitu duen sektore bakarra) eta bideojokoetan (beherakada nabarmenena izan du) gertatu dira.

2019. urtearekin alderatuta, % 7,3 txikitu da estatistikan parte hartu duten agenteen kopurua; dinamika hori ere hauteman zen 2017. urtearekin alderatuta. Beherakada horren arrazoiek lotura dute estatistiken lehen edizioetako errolda-garbiketarekin. Alde horretatik, egungo mapak hobeto islatzen du sormen-industrien errealitatea, betiere kontuan hartuta azterlanean parte hartzeko planteatzen diren baldintzak.


1. irudia. **Agenteak, sektorearen arabera.** Absolutuak. 2019-2021



Termino absolutuetan, sormen-industrien diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da, 36,9 milioi eurokoa, hau da, sarreraren % 11,4. Aztertuz gero, ikusten da publizitatearen sektoreari dagokiola guztizkoaren % 38,6. Diru-sarreraren bolumena dela-eta nabarmentzen den beste sektore bat hizkuntzaren industriak dira, sormen-industria guztien % 20,0 hartzen baitute. Gastuei erreparaturaz gero, sektoreen araberrako banaketa diru-sarreraren banaketaren antzekoa da. Etekinei dagokienez, moda nabarmentzen da, % 36,8ko balantza positiboarekin diru-sarreraren aldean, eta, ondoren, bideojokoak eta diseinua (% 10,9 eta % 10,1, hurrenez hurren).


2. irudia. Agenteen guztizko diru-sarrerak, sektoreen arabera.

Milioika eurotan. 2019-2021



3. irudia. Agenteen guztizko gastuak, sektoreen arabera.

Milioika eurotan. 2019-2021




4. irudia. Diru-sarrerak, gastuak eta balantzea, sektorearen eta agente-tipologiaren arabera. 2019-2021

Urtea	Sektorea	Diru-sarrerak	Gastuak	Balantzea	Gutizko diru-sarreraren ehunekoa
		Milaka eurotan	Milaka eurotan	Milaka eurotan	%
2019	Arkitektura	34.963,0	30.324,6	4.638,4	% 13,3
	Diseinua	37.178,6	35.036,2	2.142,4	% 5,8
	Hizkuntzaren industriak	64.872,5	62.444,7	2.427,9	% 3,7
	Moda	55.932,5	40.478,3	15.454,2	% 27,6
	Publizitatea	138.961,8	131.468,2	7.493,6	% 5,4
	Bideojokoak	12.411,5	12.000,5	411,0	% 3,3
Guztira		344.320,0	311.752,5	32.567,4	% 9,5
2021	Arkitektura	35.636,9	32.620,9	3.016,0	% 8,5
	Diseinua	33.887,0	30.467,1	3.419,9	% 10,1
	Hizkuntzaren industriak	64.507,1	63.096,1	1.411,0	% 2,2
	Moda	50.073,5	31.649,0	18.424,5	% 36,8
	Publizitatea	124.725,3	115.590,1	9.135,2	% 7,3
	Bideojokoak	14.061,9	12.529,5	1.532,4	% 10,9
Guztira		322.891,7	285.952,7	36.939,0	% 11,4

EAEko sormen-industriek 3.845,1 langile dituzte. Enpleguaren % 68 publizitatearen sektorearen (% 38,7) eta hizkuntzaren industrien (% 29,3) artean banatzen da. Termino absolutuetan enplegu gutxien sortzen duen sektorea bideojokoena da (% 5,2). Edonola ere, enpleguak enpresen arabera aztertzeak lagundu egiten du sektoreen enpleguaren dimentsioari buruzko ikuspegia osatzen. Lehenengo mailan, hizkuntzaren eta bideojokoen industriak daude (enpresako 19,7-16,7 lanpostu); bigarren mailan, publizitatea eta moda (enpresako 13,9 eta 10,7 lanpostu, hurrenez hurren); eta hirugarren mailan, diseinua eta arkitektura (batez beste 5-6 langile enpresako).

5. irudia. **Agenteen langileen guztizkoa, sektoreen arabera (enplegu propioa). Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. Absolutuak. 2019-2021**




6. irudia. **Agenteen langileen guztizkoa, sektoreen arabera (enplegu propioa). Urteko lanaldi osoko langile baliokideak. 2019-2021**

Urtea	Sektorea	Langileak	Ehunekoa, langileen guztizkoarekiko
2019	Arkitektura	345,9	% 9,4
	Diseinua	334,8	% 9,1
	Hizkuntzaren industriak	1.086,0	% 29,5
	Moda	341,7	% 9,3
	Publizitatea	1.294,6	% 35,2
	Bideojokoak	275,6	% 7,5
Guztira		3.678,6	% 100,0
2021	Arkitektura	421,9	% 11,0
	Diseinua	289,2	% 7,5
	Hizkuntzaren industriak	1.125,3	% 29,3
	Moda	321,6	% 8,4
	Publizitatea	1.487,10	% 38,7
	Bideojokoak	200,0	% 5,2
Guztira		3.845,1	% 100,0

2.2. Lurraldea

EAEko sormen-industrien lurralde-banaketak eratzten duen mapan, Bizkaiak agenteen % 53,7 biltzen ditu, Gipuzkoak % 33,8 eta Arabak % 12,5.

7. irudia. **Agenteak, lurralde historikoaren arabera.** Absolutuak. 2019-2021



Sektore bakoitzaren lurralde-banaketari erreparatuz gero, ikus daiteke Bizkaia dela lurralde nagusia sektore gehienetan, hizkuntzaren industrietan izan ezik; sektore horretan, Gipuzkoako enpresek dute nagusitasuna.


8. irudia. **Agenteak, lurralde historikoaren arabera.** Ehunekoak. 2019-2021.

Urtea	Sektorea	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
2019	Arkitektura	19,0	23,8	57,1
	Diseinua	9,1	32,7	58,2
	Hizkuntzaren industriak	11,5	47,5	41,0
	Moda	3,0	27,3	69,7
	Publizitatea	14,6	34,1	51,2
	Bideojokoak	5,3	21,1	73,7
Guztira		12,4	33,1	54,5
2021	Arkitektura	18,1	29,2	52,8
	Diseinua	8,0	30,0	62,0
	Hizkuntzaren industriak	12,3	45,6	42,1
	Moda	6,7	30,0	63,3
	Publizitatea	13,1	33,6	53,3
	Bideojokoak	8,3	33,3	58,3
Guztira		12,5	33,8	53,7

Diru-sarrerei dagokienez, EAEko guztizkoaren % 57,1 Bizkaian biltzen da, % 34,4 Gipuzkoan eta % 8,5 Araban. Enpleguari dagokionez, % 61 Bizkaian biltzen da, % 30 Gipuzkoan eta % 9,3 Araban.

9. irudia. Guztizko diru-sarrerak, lurralde historikoaren arabera.

Milioika eurotan. 2019-2021



10. irudia.

Diru-sarrerak, lurralde historikoaren arabera.


Absolutuak (milaka eurotan) eta ehunekoak. 2019-2021

Urtea	Sektorea	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
2019	Arkitektura	2.949,6	8,4	6.107,5	17,5	25.906,0	74,1	34.963,0	100,0
	Diseinua	1.489,9	4,0	19.004,8	51,1	16.683,9	44,9	37.178,6	100,0
	Hizkuntzaren industriak	5.621,6	8,7	26.583,9	41,0	32.667,0	50,4	64.872,5	100,0
	Moda	3.468,6	6,2	27.079,4	48,4	25.384,6	45,4	55.932,5	100,0
	Publizitatea	14.766,4	10,6	38.844,3	28,0	85.351,0	61,4	138.961,8	100,0
	Bideojokoak	139,9	1,1	2.628,0	21,2	9.643,6	77,7	12.411,5	100,0
Guztira		28.436,0	% 8,3	120.247,9	% 34,9	195.636,1	% 56,8	344.320,0	100,0
2021	Arkitektura	3.072,1	% 8,6	8.385,2	% 23,5	24.179,6	% 67,8	35.636,9	100,0
	Diseinua	1.302,7	% 3,8	18.081,4	% 53,4	14.503,0	% 42,8	33.887,0	100,0
	Hizkuntzaren industriak	5.871,0	% 9,1	26.002,9	% 40,3	32.633,1	% 50,6	64.507,1	100,0
	Moda	4.362,8	% 8,7	27.324,8	% 54,6	18.385,9	% 36,7	50.073,5	100,0
	Publizitatea	12.632,6	% 10,1	27.883,5	% 22,4	84.209,1	% 67,5	124.725,3	100,0
	Bideojokoak	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira		27.398,2	% 8,5	111.160,6	% 34,4	184.332,8	% 57,1	322.891,6	100,0

Oharra: datuen babesa dela eta, ez da bideojokoaren sektoreari buruzko datu zehatzik eman.

Langile gehien dituzten sektoreak publizitatea (1.487,1 guztira) eta hizkuntzaren industriak (1.125,3 guztira) dira. Azpimarratzekoa da diseinuak Gipuzkoan duen garrantzia (EAEko enplegu osoaren % 54,9), baita arkitekturak Araban duena ere (EAEko enplegu osoaren % 16,4).

11. irudia. Langileak (urteko lanaldi osoko langile baliokideak),
lurralde historikoaren arabera. Absolutuak. 2019-2021



12. irudia. Enplegua, lurralde historikoaren arabera.

Absolutuak eta ehunekoak. 2019-2021

Urtea	Sektorea	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		Guztira	
		Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%	Maizt.	%
2019	Arkitektura	56,0	16,2	85,0	24,6	204,9	59,2	345,9	100,0
	Diseinua	18,3	5,5	189,0	56,5	127,5	38,1	334,8	100,0
	Hizkuntzaren industriak	99,0	9,1	424,1	39,1	562,8	51,8	1.086,0	100,0
	Moda	20,2	5,9	131,0	38,3	190,6	55,8	341,7	100,0
	Publizitatea	157,6	12,2	321,2	24,8	815,8	63,0	1.294,6	100,0
	Bideojokoak	3,0	1,1	71,6	26,0	201,0	72,9	275,6	100,0
Guztira		354,1	9,6	1.222,0	33,2	2.102,6	57,2	3.678,6	100,0
2021	Arkitektura	69,2	16,4	124,5	29,5	228,2	54,1	421,9	100,0
	Diseinua	15,0	5,2	158,8	54,9	115,3	39,9	289,2	100,0
	Hizkuntzaren industriak	104,0	9,2	419,5	37,3	601,8	53,5	1.125,3	100,0
	Moda	32,0	9,9	139,9	43,5	149,7	46,6	321,6	100,0
	Publizitatea	133,7	9,0	244,4	16,4	1.109,0	74,6	1.487,1	100,0
	Bideojokoak*	-	-	-	-	-	-	-	-
Guztira		355,9	9,3	1.147,0	29,8	2.342,1	60,9	3.845,0	100,0

Oharra: datuen babesa dela eta, ez da bideojokoaren sektoreari buruzko datu zehatzik eman.

3. Dimentsioa eta iraunkortasuna

Jarraian ageri diren zifrek aukera ematen dute sormen-industriak beste ikuspuntu batzuetatik aztertzeko: lehenik eta behin, sektorearen industria-dimentsioa, negozio-bolumenaren eta sortzen den enpleguaren arabera, eta, bigarrenik, haren iraunkortasun ekonomikoa, etekinak aztertuta.

3.1. Industria-dimentsioa

Jarraian, sektoreen dimentsioa erakusten da, negozioaren ikuspegiaren arabera, aintzat hartuta zer fakturazio-bolumen duten sektore ekonomiko bakoitzaren industria-ehuna osatzen duten agenteek. Halaber, enplegu-bolumena neurtzen da, eta, horretarako, urteko lanaldi osoko langile baliokideak kalkulatu dira, baita agenteek langileen arloan egiten duten gastua ere.

Ateratzen diren datuak aztertuta, modaren, bideojokoen, publizitatearen eta hizkuntzaren industrien sektoreak nabarmentzen dira, lortutako diru-sarreraren batezbestekoa aintzat hartuta: modak, batez beste, 1,6 milioi, eta bideojokoek, publizitateak eta hizkuntzaren industriak 1,1 milioi: beraz, gainditu egin dute sormen-industrien guztizko batezbestekoa.

2019. urtearekin alderatuta, nabarmen handitu dira bideojokoen sektoreko diru-sarrerak.

13. irudia. Industria-dimentsioa. 2019-2020

Urtea	Tipologia	Agente-kop.	Diru-sarrerak	
			Maizt.	Batez best.
			(milaka €)	(milaka €)
2019	Arkitektura	63	34.963,00 €	555,00 €
	Diseinua	55	37.178,60 €	676,00 €
	Hizkuntzaren industriak	61	64.872,50 €	1.063,50 €
	Moda	33	55.932,50 €	1.694,90 €
	Publizitatea	123	138.961,80 €	1.129,80 €
	Bideojokoak	19	12.411,50 €	653,20 €
Guztira		354	344.319,90 €	972,70 €
2021	Arkitektura	72	35.636,87 €	494,96 €
	Diseinua	50	33.887,02 €	677,74 €
	Hizkuntzaren industriak	57	64.507,07 €	1.131,70 €
	Moda	30	50.073,51 €	1.669,12 €
	Publizitatea	107	124.725,25 €	1.165,66 €
	Bideojokoak	12	14.061,89 €	1.171,82 €
Guztira		328	322.891,62 €	984,43 €

Enpleguari dagokionez, sektore berdinak nabarmentzen dira (hizkuntzaren industriak eta publizitatea), eta gora egin du lanean ari diren pertsonen guztizko kopuruen arteko aldeak. Sektore bakoitzaren enplegua neurtzean (urteko lanaldi osoko langile baliokideen guztizko kopuruaren eta langileen arloan duten gastuaren bidez), ikusten da bideojokoan, diseinuaren eta modaren sektoreak, hurrenez hurren, daudela urrutien sormen-industrien guztizkoaren batezbestekotik. Langileko batez besteko gastuan, batezbestekoaren gainetik daude hizkuntzaren industriak eta diseinua.

14. irudia. Enpleguaren kostua. 2019-2021

Urtea	Tipologia	Langile-kop.	Langile-gastuak	
			Maizt.	Gastu/langile (milaka €)
			(milaka €)	
2019	Arkitektura	345,9	11.044,80 €	31,90 €
	Diseinua	334,8	11.934,40 €	35,60 €
	Hizkuntzaren industriak	1.086,00	39.727,00 €	36,60 €
	Moda	341,7	9.725,90 €	28,50 €
	Publizitatea	1.294,60	51.712,50 €	39,90 €
	Bideojokoak	267,6	8.016,30 €	30,00 €
Guztira		3.670,60	132.160,80 €	36,00 €
2021	Arkitektura	421,9	13.621,45 €	32,29 €
	Diseinua	289,2	11.231,46 €	38,84 €
	Hizkuntzaren industriak	1.125,30	42.274,48 €	37,57 €
	Moda	321,62	9.493,50 €	29,52 €
	Publizitatea	1.487,10	51.187,72 €	34,42 €
	Bideojokoak	200	6.953,46 €	34,77 €
Guztira		3.845,12	134.762,06 €	35,05 €

3.2. Iraunkortasuna

Diru-sarreraren eta gastuen arteko loturak sormen-industrien iraunkortasuna islatzen du; horretarako, etekinen ehunekoa kalkulatzeko guztizko diru-sarreraren aldean. Alde horretatik, modaren sektoreak du errentagarritasunik handiena (% 36,8), eta txikiena, berriz, hizkuntzaren industrietan (% 2,2).

15. irudia. Enpresa-iraunkortasuna. 2019-2021

Urtea	Tipologia	Etekinak	Diru-sarrerak	
			Maizt.	Etekinen % diru- -sarrerekiko
			(milaka €)	
2019	Arkitektura	4.638,40 €	34.963,00 €	% 13,30
	Diseinua	2.142,40 €	37.178,60 €	% 5,80
	Hizkuntzaren industriak	2.427,90 €	64.872,50 €	% 3,70
	Moda	15.454,20 €	55.932,50 €	% 27,60
	Publizitatea	7.493,60 €	138.961,80 €	% 5,40
	Bideojokoak	411 €	12.411,50 €	% 3,30
Guztira		32.567,40 €	344.320,00 €	% 9,50
2021	Arkitektura	3.015,92 €	35.636,87 €	% 8,46
	Diseinua	3.419,93 €	33.887,02 €	% 10,09
	Hizkuntzaren industriak	1.410,96 €	64.507,07 €	% 2,19
	Moda	18.424,48 €	50.073,51 €	% 36,79
	Publizitatea	9.135,20 €	124.725,25 €	% 7,32
	Bideojokoak	1.532,41 €	14.061,89 €	% 10,90
Guztira		36.938,89 €	322.891,62 €	% 11,44

4. Sektoreen asimetriak eta profilak

4.1. Asimetriak

Sektoreko barruko asimetriak aztertzeko, errealitate bakoitzaren begirada zehatzagoa lortzeko, 80-20 araua aplikatzen da, asimetriak azaleratzeko.


Beraz, aztertzen da diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k sektore bakoitzean duen eragina (guztizkoaren ehunekoari begira sortzen dituzten diru-sarrerak). Hala, ikuspegi bikoitza lortzen da: diru-sarrera handienak dituzten agenteen erretratua eta, aldi berean, sektore bakoitzeko agente gehienei dagokien negozio- eta enplegu-bolumena.

Enpleguarekin lotuta, sektore gehienak, neurri handi batean, 80-20 asimetriara egokitzen dira; beraz, sei sektoreetatik lauk dute diru-sarreraren % 70-80 sortzen duten agenteen % 20. Salbuespenak dira bideojokoen eta arkitekturaren sektoreak, non % 20k % 46 eta % 56 sortzen duten, hurrenez hurren.


Enpleguari dagokionez, egoera-aniztasuna apur bat handiagoa da; hala ere, asimetria txikiagoan izaten jarraitzen dute bideojokoen eta arkitekturaren sektoreek. Soilik hizkuntza-industrietan sortzen du % 20k enpleguaren % 80tik gora, eta, sektoreen erdiko bloke bat bada, % 57-72 sortzen duena; aldiz, bideojokoen eta arkitekturaren sektoreen ehunekoak % 34 eta % 41 dira, hurrenez hurren.

Laburbilduz, nahiz eta kasu batzuetan asimetriak ez diren hain nabarmenak, sektore guztietan daude, neurri txiki edo handiagoan, eta, oro har, askoz ere txikiagoak dira bideojokoen eta arkitekturaren sektoreetan.

16. irudia. **Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren diru-sarreraren kontzentrazioaren arabera.** Ehunekoa. 2019-2021



17. irudia. **Agenteen tipologiaren rankinga, diru-sarrera gehien dituzten agenteen % 20ren enpleguaren kontzentrazioaren arabera.** Ehunekoa. 2019-2021




4.2. Agenteen profilak

Atal honetan, agenteak sailkatzen dira, diru-sarreraren eta langileen arabera; lehenik eta behin, agenteen lurralde-banaketa jasotzen da. Azterketa sektoreka egiten da.

4.2.1. Arkitektura


Arkitekturaren sektorea 72 enpresak osatzen dute. Bizkaia da enpresa gehien dituen lurralde historikoa (% 52,7), eta, ondoren, Gipuzkoa (% 29,2) eta Araba (% 18,1). 100.000 biztanleko agenteen ratioa aztertuz gero, aldeak orekatu egiten dira, eta Araba dago lehen postuan, 3,95 arkitektura-enpresarekin 100.000 biztanleko: ondoren, Bizkaia (3,32) eta Gipuzkoa (2,92) daude.

18. irudia. Arkitektura-enpresak, lurralde historikoaren arabera.
2019-2020



Jarduera-kontzeptuan, lurralde-egiturak agente-kopuruaren banaketaren eredu berari jarraitzen dio: Bizkaia % 50 gainditzen du, eta, ondoren, Gipuzkoa (% 32,3) eta Araba (% 16,2) daude. Lurralde bakoitzean agente bakoitzeko proiektuen batezbestekoa aztertzen bada, agenteen ratioa ez bezala, Gipuzkoa da lehena, 28,9ko batezbestekoarekin, eta, ondoren, Bizkaia (25,5) eta Araba (23,4).

19. irudia. Arkitektura-enpresen jarduera, lurralde historikoaren arabera. 2020-2021



Sektorean, oro har, 100.000 eta 500.000 euro artean sortzen dituzten enpresak nagusitzen dira, enpresa guztien % 66,7 ordezkatzeko baitute. Hala ere, asimetriaren ondorioz, segmentu nagusi horrek diru-sarreraren % 32,4 sortzen du soilik. Enpleguari dagokionez, enpresa-talde horrek enpleguaren erdia biltzen du. Enpleguaren banaketak lotura argia du enpresaren tamainarekin eta fakturazioarekin (zenbat eta fakturazio txikiagoa, orduan eta enplegu gutxiago).

20. irudia. Arkitektura-enpresak, diru-sarreraren arabera. 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	1.000.000 € baino gehiago	7,0	11,1	50,1	24,2	12,0
	500.001-1.000.000 €	10,0	15,9	18,5	19,7	6,8
	100.000-500.000 €	41,0	65,1	30,3	52,8	4,5
	100.000 baino gutxiago	5,0	7,9	1,0	3,3	2,3
Guztira		63,0	100,0	100,0	100,0	5,5
2021	1.000.000 € baino gehiago	4	5,6	34,0	13,3	14
	500.001-1.000.000 €	17	23,6	33,2	34,2	8,5
	100.000-500.000 €	48	66,7	32,4	51,2	4,5
	100.000 baino gutxiago	3	4,2	0,4	1,4	2
Guztira		72	100	100,0	100	5,9

Azkenik, azpimarratu behar da aztertu diren arkitektura-enpresak batik bat mikroenpresak direla, plantillan 10 langile baino gutxiago dituzten agenteak (sektorearen % 86,1).

21. irudia. Arkitektura-enpresak, urteko lanaldi osoko langile
baliokideen arabera. 2019-2021


Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	55	87,0
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	8	13,0
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	-	-
Guztira		63	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	62	86,1
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	10	13,9
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	-	-
Guztira		72	100

4.2.2. Diseinua


Diseinuaren sektoreak 50 agente zituen 2021ean. Agenteen % 62 Bizkaian daude, eta bertan dago 100.000 biztanleko ratio handiena (2,7 agente). Ondoren, Gipuzkoa dago, % 30arekin (2,1 agente 100.000 biztanleko), eta, azkenik, Araba, agenteen % 8rekin (1,2 100.000 biztanleko).

Aldiz, jarduerari dagokionez, Gipuzkoa da lurralde nagusia, eta horrek adierazten du agente garrantzitsuak daudela ekoizpenaren arloan. Gipuzkoak % 84,6 irudikatzen du, eta ondoren Bizkaia (% 13,6) eta, azkenik, Araba (% 1,8) daude.

22. irudia. Diseinu-enpresak, lurralde historikoaren arabera. 2019-2021



23. irudia. Diseinu-enpresen jarduera, lurralde historikoaren arabera. 2019-2021



Sektoreko agente gehienek diru-sarrerak 500.000 euroen azpitik daude (% 76), nahiz eta soilik diru-sarreraren % 16 inguru sortzen duten. Aitzitik, milioi bat euro baino gehiago fakturatzen dituzten agenteen segmentuak % 12,7 ordezkatzen du, eta ia guztizkoaren % 72 jasotzen dute.

Enpleguari dagokionez, agente handi horiek diseinuaren arloko langileen % 51,2 biltzen dituzte. 500.000 eta 1.000.000 euro artean fakturatzen dituzten enpresek enpleguaren % 17,3 ordezkatzen dute, 100.000-500.000 euro artekoek % 24,5, eta 100.000 eurotik beherakoek % 7. Beraz, egitura desorekatua da, agente txikien kopuru garrantzitsuarekin eta agente eragile gutxi batzuekin.

24. irudia. Diseinu-enpresak, diru-sarreraren arabera. 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	1.000.000 € baino gehiago	7,0	12,7	71,7	49,0	23,4
	500.001-1.000.000 €	6,0	10,9	12,2	15,0	8,4
	100.001-500.000 €	24,0	43,6	13,6	26,6	3,7
	100.000 baino gutxiago	18,0	32,7	2,5	9,5	1,8
Guztira		55,0	100,0	100,0	100,0	6,1
2021	1.000.000 € baino gehiago	8	16,0	16,0	51,2	18,5
	500.001-1.000.001 €	5	10,0	10,0	17,3	10,0
	100.000-500.000 €	21	42,0	42,0	24,5	3,4
	100.000 baino gutxiago	16	32,0	32,0	7,0	1,3
Guztira		50	100,0	100,0	100	5,8

Beraz, langile-kopuruaren arabera tamainari dagokionez, ez da harritzekoa sektorea gehienbat 10 enplegutik beherako mikroenpresek osatzea: sektorearen % 90 ordezkatzan dute. Aurreko taulari begira, ikus daiteke agenteen herenak, batez bestean, urteko lanaldi osoko 1,3 langile baliokide okupatzen dituela.


25. irudia. Diseinu-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2019-2021

Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	50,0	90,9
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	4,0	7,3
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	1,0	1,8
Guztira		55,0	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	45	90
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	4	8
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	1	2
Guztira		50	100

4.2.3. Hizkuntzaren industriak

2021ean, sektorea 57 agentek osatzen zuten guztira. Kasu honetan, Gipuzkoa eta Bizkaia orekatuta daude agenteen garrantziari dagokionez (% 45,6 eta % 42,1, hurrenez hurren), eta Arabak du garrantzirik txikiena (% 12,3). Beraz, lurralde bakoitzaren errealitate demografikoa aintzat hartuta, Gipuzkoan askoz handiagoa da hizkuntzaren industrien arloko enpresen ratioa 100.000 biztanleko, 3,6 punturekin; Bizkaia eta Araba, berriz, 2,1 puntu dituzte (ikuspegi honekin, oreka handiagoa da).

26. irudia. Hizkuntzaren industriak lurralde historikoaren arabera.
2019-2021



Hizkuntzaren industrien profil ekonomikoari erreparatuz gero, ikus daiteke sektoreko agenteen % 43,9k 500.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak dituztela, eta % 22,8k 100.000 euro baino gutxiagokoak. Nahiz eta segmentu horiek biltzen duten agente-kopururik handiena, soilik diru-sarrera guztien % 11,7 ordezkatzeko dute. Milioi bat eurotik gorako fakturazioa duten enpresek guztizkoaren % 22,8 ordezkatzeko dute, baina, kasu honetan, diru-sarreraren % 81,4 jasotzen dute.

Enpleguari dagokionez, berriro ere enpresa handiek dute zatirik handiena, % 85,1 arekin (urteko lanaldi osoko 73,7 langile baliokide); bestalde, 500.000 eurotik beherako agenteak, nahiz eta % 66,7 ordezkatu, ez dira iristen enpleguaren % 10era.

27. irudia. Hizkuntzaren industriak, diru-sarreraren arabera. 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	1.000.000 € baino gehiago	14,0	23,0	81,7	85,3	66,1
	500.001-1.000.000 €	6,0	9,8	6,5	4,4	8,0
	100.001-500.000 €	26,0	42,6	10,5	8,1	3,4
	100.000 baino gutxiago	15,0	24,6	1,3	2,2	1,6
Guztira		61,0	100,0	100,0	100,0	17,8
2021	1.000.000 € baino gehiago	13	22,8	81,4	85,1	73,7
	500.001-1.000.000 €	6	10,5	6,9	5,1	9,5
	100.001-500.000 €	25	43,9	10,4	7,9	3,6
	100.000 baino gutxiago	13	22,8	1,3	1,9	1,6
Guztira		57	100,0	100	100,0	19,7

Hala ere, nahiz eta mikroenpresak gehiengoa diren, haien garrantzia ez da orokorra. Enpresen % 22,8k 10 eta 49 langile artean dituzte, eta % 8,8k 50 baino gehiago.

28. irudia. **Hizkuntzaren industriak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera.** 2019-2021


Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	46,0	75,4
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	10,0	16,4
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	5,0	8,2
Guztira		61,0	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	39	68,4
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	13	22,8
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	5	8,8
Guztira		57	100,0

4.2.4. Moda

Guztira, 30 agentek osatzen zuten modaren sektorea 2021ean. Erdia baino gehiago Bizkaian daude (% 63,3), % 30 Gipuzkoan eta % 6,7 Araban.

100.000 biztanleko enpresa-ratioari dagokionez, Bizkaian 1,7koa da, Gipuzkoan 1,3koa eta Araban 0,6koa.

29. irudia. Moda-enpresak, lurralde historikoaren arabera. 2017-2019



Profil ekonomikoari dagokionez, enpresen % 43,3k milioi bat eurotik gorako diru-sarrerak dituzte. Enpresa horiek diru-sarreraren % 93,8 eta urteko lanaldi osoko lanpostuen % 83,4 dituzte.

Beraz, gehienbat mikroenpresek (10 langilera arte) eta enpresa txikiek (10 eta 49 langile artean) osatzen dute sektorea (% 96,7, horietatik % 60 mikroenpresek).

30. irudia. **Moda-enpresak, diru-sarreraren arabera.** 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	1.000.000 € baino gehiago	10,0	30,3	91,3	78,0	26,6
	100.000-1.000.000 €	18,0	54,5	8,2	19,4	3,7
	100.000 baino gutxiago	5,0	15,2	0,5	2,6	1,8
Guztira		33,0	100,0	100,0	100,0	10,3
2021	1.000.000 € baino gehiago	13	43,3	93,8	83,4	20,6
	100.000-1.000.000 €	13	43,3	5,7	14,9	3,7
	100.000 baino gutxiago	4	13,3	0,5	1,7	1,4
Guztira		30	100	100,0	100,0	10,7

31. irudia. **Moda-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera.** 2019-2021

Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	22,0	66,7
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	10,0	30,3
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	1,0	3,0
Guztira		33,0	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	18	60,0
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	11	36,7
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	1	3,3
Guztira		30	100


4.2.5. Publizitatea

Publizitatearen sektorea da agente gehien dituen: guztira 107. Agenteen % 53,3 Bizkaian daude, % 33,6 Gipuzkoan eta % 1,1 Araban. 100.000 biztanleko enpresa-kopuruari begira, ikus daiteke oreka handiagoa dagoela lurraldeen artean, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaia artean (bakoitzak 5 puntu inguru); aldiz, Arabaren ratioa 4,3 puntukoa da.

Enpresen jarduerari eta lurralde-banaketari dagokienez, badaude aldeak, kanpainak edo zerbitzuak aztertzearen arabera. Kanpainen arloan, Bizkaia nagusitzen da (% 55,4), eta, zerbitzuetan, Gipuzkoa (% 54,7). Kanpainen kasuan, Arabaren ehunekoa % 22,1ekoa da, eta, aitzitik, zerbitzuetan, % 7,5ekoa. Ehuneko-banaketa hori gorabehera, Arabak adierazle horrek islatzen duena baino garrantzi handiagoa du, kontuan hartzen bada lurraldeko agenteko jarduera-batezbestekoa. Zehazki, kanpainen arloko liderra da, adierazle hori aintzat hartuta, agenteko 72,1 kanpainarekin (44,3 Bizkaian eta 28,5 Gipuzkoan).


32. irudia. Publizitate-enpresak, lurralde historikoaren arabera.

2019-2021




33. irudia. Kanpaina propioak, lurralde historikoaren arabera.

2019-2021



34. irudia. Zerbitzuak, lurralde historikoaren arabera. 2019-2021



Datu ekonomikoei eta okupazioari begira, enpresa gehienak 100.000 eta 500.000 euro artekoak dira (guztizkoaren % 47,7). Hala ere, soilik diru-sarreraz guztien % 11,1 eta enpleguaren % 19,1 sortzen dute. Aldiz, agente handien segmentu txiki batek (milioi batetik gorako diru-sarrerak dituzten % 16,8) diru-sarreraz guztien % 77,2 eta enpleguaren % 66 mobilizatzen du.

35. irudia. Publizitate-enpresak, diru-sarreraren arabera. 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	1.000.000 € baino gehiago	27,0	22,0	78,8	64,1	30,8
	500.001-1.000.000 €	15,0	12,2	7,5	9,9	8,5
	100.000-500.000 €	62,0	50,4	12,8	22,2	4,6
	100.000 baino gutxiago	19,0	15,4	0,9	3,8	2,6
Guztira		123,0	100,0	100,0	100,0	10,5
2021	1.000.000 € baino gehiago	18	16,8	77,2	66,0	54,5
	500.001-1.000.000 €	19	17,8	10,7	12,7	9,9
	100.000-500.000 €	51	47,7	11,1	19,1	5,6
	100.000 baino gutxiago	19	17,8	1,0	2,3	1,8
Guztira		107	100	100,0	100,0	13,9

Nahiz eta mikroenpresen segmentu zabala dagoen (% 72,9), 10 eta 49 enplegu arteko enpresa txikiek ere garrantzia dute sektorean (% 24,3).

36. irudia. **Publizitate-enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera.** 2019-2021


Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	96,0	78,0
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	25,0	20,3
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	2,0	1,6
Guztira		123,0	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	78	72,9
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	26	24,3
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	3	2,8
Guztira		107	100

4.2.6. Bideojokoak

Bideojokoen sektorea da txikiena, eta 12 agente zituen 2021ean. Batez bestean, EAEn 0,55 agente daude 100.000 biztanleko: 0,61 Bizkaian, 0,55 Gipuzkoan eta 0,31 Araban. Ehunekoei dagokienez, Bizkaian % 58,3 daude, Gipuzkoan % 33,3, eta Araban, edizio honetan, kasu bakarra identifikatu da.

37. irudia. Bideojokoen enpresak, lurralde historikoaren arabera.

2019-2021



Sektorearen bi heren diru-sarreraren goiko segmentuan daude, 500.000 euro baino gehiagorekin (% 66,7). Enpresa horien esku daude sektoreko diru-sarreraren % 96 eta enpleguaren % 94,5.

38. irudia. Bideojokoen enpresak, diru-sarreraren arabera. 2019-2021

Urtea		Agenteak		Diru-sarrerak	Urteko lanaldi osoko langile baliokideak	
		Maizt.	%	%	%	Batez best.
2019	500.000 € baino gehiago	8,0	42,1	87,1	77,4	25,9
	100.000-500.000 €	5,0	26,3	11,0	17,2	9,2
	100.000 baino gutxiago	6,0	31,6	1,9	5,5	2,4
Guztira		19,0	100,0	100,0	100,0	14,1
2021	500.000 € baino gehiago	8	66,7	96,0	94,5	23,6
	500.000 € arte	5	33,3	4,0	5,5	2,9
Guztira		12	100	100	100	16,7

Enpresen tamainari dagokionez, enpleguaren arabera, enpresa gehienak 10 eta 49 lanpostu artekoak dira (% 66,7); horrez gain, 10 lanpostu baino gutxiagoko mikroenpresak ere badaude, eta ez dago 50 lanpostu baino gehiagoko enpresa ertain edo handirik.

39. irudia. Bideojokoen enpresak, urteko lanaldi osoko langile baliokideen arabera. 2019-2021

Urtea		Maizt.	%
2019	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	9,0	47,4
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	10,0	52,6
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	-	-
Guztira		25,0	100,0
2021	Mikroenpresak: 10 enplegu baino gutxiago	4	33,3
	Enpresa txikia: 10-49 enplegu	8	66,7
	Enpresa ertain-handia: 50 enplegu baino gehiago	-	-
Guztira		12	100


5. Nazioartekotzea

Atal honetan, diseinuaren, modaren eta publizitateen sektoreen nazioartekotze-gaitasuna aztertzen da.

Diseinuaren eta modaren kasuan, EAEtik kanpoko merkatuek garrantzi handia dute. Diseinua da nazioartekotze-maila handiena duen sektorea, % 28,6ko fakturazioarekin Europako eta Europatik kanpoko merkatuan. Modari dagokionez, kanpo-merkatuen % 17,3 Europakoak dira, eta % 8,1 Europatik kanpokoak. Diseinuaren eta modaren sektoreetan, EAEko fakturazioa % 28 eta % 30 artekoa izan zen 2021 ean, eta, estatu-mailakoa, berriz, % 42 eta % 44 artekoa.

Publizitatearen kasuan, fakturazioaren erdia baino gehiago EAEko bezeroei dagokie (% 53,2), eta % 45,3 estatu-mailakoei; nazioarteko merkatuan ez du ia presentziarik.

40. irudia. Fakturazioa, publizitate, moda- eta diseinu-enpresen merkatuaren arabera. 2019-2021




6. Generoa

6.1. Emakumeen presentzia

Sormen-industrien sektorean, aldakortasun handia dago emakumeen presentziari dagokionez: kasu batzuetan, gehiengoa dira, eta, beste batzuetan, gutxiengoa. Badaude beste errealitate orekatuago batzuk ere. Kasu guztietan, gorakada txiki bat hauteman da 2019az geroztik.

Modan, presentziak % 80 gainditu du, eta hizkuntzaren industrietan eta publizitatean ehunekoak % 63,9 eta % 61,1 dira, hurrenez hurren. Diseinuaren sektorean dago oreka handiena, % 52,2rekin 2021ean. Azkenik, arkitekturan % 42,2 ordezkatzan dute, eta, bideojokoaren sektorean, % 31,4.

41. irudia. Emakumezko langileak, sormen-industrietako sektoreen arabera. Ehunekoak. 2019-2021



Eginkizun profesionalaren arabera begirada sakonago batek erakusten duen moduan, zuzendaritza-postuetan, gehiengoa dira modan (% 71,6) eta hizkuntzaren industrietan (% 56), eta diseinuan, presentzia esanguratsua izan arren (% 41), ez dira gehiengoa. Lan teknikoetan eta sormen-lanetan, gehiengoa dira modan (% 85,8) eta hizkuntzaren industrietan (% 64,3), eta eginkizun profesional horien erdiaz arduratzen dira diseinuan (% 50,5), publizitatean (% 47,1) eta arkitekturan, nahiz eta azken horretan ehunekoa pixka bat txikiagoa izan (% 43,5). Soilik bideojokoetan dira gutxiengo argia (% 19,1). Azkenik, kudeaketa- eta administrazio-postuetan dute presentzia handiena, non sektore guztietan % 70 baino gehiago ordezkatzan duten.


42. irudia. Emakumezko langileak, sormen-industrietako sektoreen eta eginkizun profesionalaren arabera.

Ehunekoa. 2019-2021

Urtea		Zuzen- daritza	Teknikaria/ Sortzailea	Ekoizpena	Kudeaketa/ Admin.	Beste batzuk	Guztira
2019	Arkitektura	20,4	39,3		74,0	15,2	39,2
	Diseinua	40,7	42,8	22,1	87,2	60,7	48,1
	Hizkuntzaren industriak	52,1	63,5		69,2	65,8	62,7
	Moda	54,1	77,0	80,9	76,2	51,1	75,1
	Publizitatea	32,7	49,9	64,9	79,8	40,8	56,7
	Bideojokoak	22,2	20,7		58,4	42,3	27,4
2021	Arkitektura	23,9	43,5		82,0	21,3	42,2
	Diseinua	41,0	50,5	41,5	76,4	40,0	52,2
	Hizkuntzaren industriak	56,0	64,3		74,5	58,8	63,9
	Moda	71,6	85,8	85,3	79,2	100,0	81,6
	Publizitatea	33,4	47,1	52,1	77,5	72,4	61,1
	Bideojokoak	18,2	19,1		100,0	50,0	31,3

Blokea ixteko, estatistiken edizio honetan emakumeek enpresako erantzukizun handieneko postuan duten presentziari buruzko informazioa jaso da. Moda sektore feminizatua da maila guztietan, erantzukizun handieneko postuak barne; hizkuntzaren industriek logika berari jarraitzen diote, baina neurri txikiagoan; publizitateak eta diseinuak emakumeen okupazio-maila ertaina dute, nahiz eta hori ez den islatzen erantzukizun handieneko postuetan; eta, azkenik, arkitektura eta bideojokoak dira gizonen presentzia handiena duten sektoreak, baita erantzukizuneko postuetan ere.


43. irudia. Emakumeak erantzukizun handieneko postuetan, sormen-industrietako sektoreen arabera. Ehunekoa. 2021



6.2. Berdintasun-politikak


Atal honetan, sormen-sektoreko enpresek enplegu-politiketan berdintasuna sustatzeko hartzen dituzten neurriak aztertzen dira.

44. irudia. Berdintasuna sustatzeko neurrien ezarpen-maila. 2021



Lehenik, ikus daiteke gehien hartzen den neurria ordutegia malgutzea dela, % 76,4rekin. Bigarrenik, telelana eta senideak zaintzeko baimen espezifikoak daude, % 68,7 eta % 62,8ko ezarpen-mailarekin hurrenez hurren. Hirugarrenik, nahiz eta gutxiago ezartzen diren (kasuen herenean soilik), berdintasun-planak edo jazarpenaren edo genero-indarkeriaren aurkako planak daude, eta, neurri horiek hartzeko bidean dauden kasuak gehitu-ta, % 50era iristen dira.


45. irudia. Ezarritako neurriak, sektorearen arabera. 2021




Sektorearen araberako ikuspegiak agerian jartzen du ordutegi malgua, telelana eta senideak zaintzeko baimenak nabarmentzen direla bideojokoen sektorean. Modan, berdintasun-planak nabarmentzen dira, nahiz eta neurririk ohikoenek ezarpen-maila txikia duten (ordutegi malgua, telelana, zaintzeko baimenak).

Azkenik, ekintza espezifikoak aplikatzeari dagokionez, soldata-generoaren eta beste lan-baldintza batzuen araberako analisisan oinarrituta, ikus daiteke monitorizazio espezifiko txikia dela, bideojokoen kasuan izan ezik. Genero-ikuspegia aplikatzeari dagokionez, sektore bakoitzeko kasuen % 30-50ek adierazi dute irizpide eta helburuak finkatu dituztela; halaber, beste horrenbestek adierazi dute aplikatzen dituztela, baina ez modu sistematizatuan. Sektore bakoitzean, hamar kasutik soilik 1-2k adierazi dute ez dutela planteatu genero-ikuspegia aplikatzea gai horien kudeaketan.

46. irudia. Soldatak, orduak eta abar sektorearen arabera xehatu eta aztertzeko tresnak, generoa bereiztuta. 2021



47. irudia. Genero-ikuspegia aplikatzea enpresaren jardueran,
barne-alderdietatik harago, sektorearen arabera. 2021





**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura